

GAZTE-TALDEEN ERREPRESENTAZIO SOZIALA

Juanjo Arrospide

Gazte-taldeen errepresentazio soziala izenburua daraman lan honetan kontzeptu bi nabarmentzen dira: TALDEA eta ERREPRESENTAZIO SOZIALA. Bata ikasketa-gaia delako eta bestea ikasketa horretarako eredu teorikoa delako.

Taldea ikertzerakoan abiapuntu arras desberdinak eman izan dira historian zehar. Horien berri jakitea interesgarri iruditu zaigu. Ezpairik gabe iraganeko erreferentzia beharrezkoa da, batez ere gaur egungo joeren eta zergatien berri jakin nahi izanez gero. Esan bidenabar, gure lan honen hasieran genuen kezketako bat horixe bera izan zela.

Taldeen ikerketaren historia eta teoriak

Iraganera txangoa egiteko Psikologia sozialaren baitan kokatu gara. Jakin, badakigu “iraganak” daudela (Ibañez, 1990), segun eta zeinek idatzi duen, bataren edo bestearen berri ematen baitzaigu.

Farr-ek (1991) Psikologia sozialaren iraganaz kontzeptu bi aipatzen ditu: “iragan luzea” eta “historia laburra”. Beraz, bi sasoi nagusi. Beste aditu batzuek ere ikasketa-eremu bi aipatuko dizkigute, Psikologia sozial psikologikoa (P.S.P.) eta Psikologia sozial soziologikoa (P.S.S.). Bien ikuspegiak abiapuntu desberdinak dituztelarik.

Ibañez-ek (1990) Psikologia sozialaren objektuaren bilakabideaz iharduten duen batean dioenez, lehenik jende-multzoaz arduratzen ziren Psikologia sozialean, geroztik elkarrekintzaz eta gaur egun kognizioaz. Apurka-apurka ikasketa-objektuaren sozialtasuna galtzen joan delarik. Azken urteotan eta batez ere psikologo sozial europar batzuen eskutik sozialtasunaren eraikuntza alderdi kognitibo eta sozialaren arteko dialektika dela kontutan izanez, ikasketa-objektu berria indarrean jarri dute.

Talde-psikologiaren bilakabidean ondorengo guneak izan direla garrantzitsuenak ontzat eman daitekeela iruditzen zaigu.

Lehena, Amalio Blanco-ren hitzetan “talde-tradizioa”, positibismo eta individualismoaren aurrez-aurre pausatzen dena. Wund-en “Völkerpsychologie”, Sighele, Le Bon eta beste egile batzuen “Masen Psikologia”, McDougall-en “Group Mind” bereziki sartu izan dira tradizio honetan. Metaketa askorekin suertatzen den lez, hemen ere ez datoz bat aipatu korrante guztiak. Agintean dauden historia-idazleen ustetan ordea denak “filosofo sozialak” dira, eta ez “psikologo sozialak”. Beraz, aurrepsikologian kokatuak.

Aurreko talde handien (Herria, jende-andana), ikasketa-objektutik, talde ttikira eginiko bilakabidea James, Baldwin eta Cooley-ren eraginaz egingo da. Bertan elkarrekintzaren garrantzia azpimarratuko da, gizabanakoa jokatzailer gisa hartuz, eta elkarrekintza ingurune batean kokatuz. Besteak beste Ellwood da talde ttikia ikasketa-objektu bezala hartuta aurrera daramanetako bat. Orain artekoa “iragan luzea” deitutakoan pausatzen da.

Ondoren etendura bat etorri zen, Floyd Allport-en (1924) idazlanen eraginpean. Psikologia soziala esperimentalista bihurtu zen; ondorioz, baita talde-psikologia ere. Eraiki zen talde-psikologia Psikologia sozial psikologikotik abiatu zen. Emaizta “errazte soziala” izango da, izan ere talde-testuinguruak gizabanakoarengan duen eragina ikertuko da soilik.

Geroztik, eta batez ere Lewin-en eskutik datorren antielementarismo gestaltikoa zela medio, Talde-

-psikologia berpiztu zen, garai batez tradizio lewindarra nagusitu zelarik. Taldea bere osotasunean adieraziko ditu ikuspuntu berriak, hau da, objektuen barnean kokatutako joerekin ezin da talde-jokabidea adierazi, inguruko elementu guztien harremanekin egin behar baita. Aebischer-ek (1990) honela dio: "gizabanakoaren, gizabanakoen arteko, eta taldearen aldagaien artikulazioaren ikerketek egiten dute Lewin gaur egungo Psikologia sozialaren benetako aitzindari".

Talde-psikologian beste etendura gauzatu zen Lewin eta bere jarraitzaileen artean. Festinger edo Kelley bezalako jarraitzaileak ikasketa-gaiak aldatuz joan ziren, taldea bere osotasunean hartu beharrean gizabanakoa bihurtu zen ikasketa-helburu. Joera honek markatu du Talde-psikologia 50.eko hamarkadatik 80.eko hamarkadara eta P.S.P. barnean eginiko bilakaera. Talde-prozesu zein egiturari buruz aurrerapen asko eginak daude. Hala ere, Talde-psikologiaren histori aztertzaileen arabera, Zander (1979) eta Shaw (1983) adibidez, datu eta ikerketen artikulazioa egingo lukeen teoriaren beharra nabarmena da, baita fokatzeko berrietara irekitzea, taldeartekotasunera adibidez.

Hirurogeitamarreko hamarkadan ekarpen berriak garatuz joan ziren. Hendrick-ek (1987) dioen bezala Tajfel omen da, talde arteko ikuspegiaren bitartez, Talde-psikologiari aurrerapen berriak ekarri dizkiona. Tajfel-en ikuspegiak batipat gizartearen alderdi estrukturalen

eragina plazaratzen duela esan daiteke. Hendrick-ek aipatutako beste teorigilea Moscovici da, berak azpimarratutako baititu gizartearen alderdi kulturalenak, Errepresentazio sozialaren Teoriaren bitartez, ezagutza sozialaren sorburua eta garapena ikertuz. Bi egile hauetan oinarrituz Doise-k eskainiko du azterketa-mailen araberrako ezagutzaren eremu egituratu bat, non gizarteko alderdi estrukturalak, kulturalak, elkarrekintza, eta gizabanakoa elkarrekin harremanetan jar baitaitezkeen. Doise sintesi baterantz abiatzen dela uler daiteke, non P.S.P. eta P.S.S.koa uztartuko lirartekeen. Talde-psikologian beste egile batzuek ere antzeko helburuarekin dihardute, hala nola Käes, Moliner, Palmonari, Amerio eta Von Cranach, besteak beste.

Esan errepresentazio sozialaren nozioak talde-ikasketarako ekarpen handi eta berriak dituela. Bartal-ek ere hori bera antzematen du ondokoa dioenean:

"errepresentazio sozialak, bai GIZARTE zein TALDE-BARNEKO ulerpenerako lan-marku bat eskainiz, errealitate sozial eta indibidualen arteko pitzadura gainditzen du" (Bartal, 1990, 30. or.).

Gure kokapena Errepresentazio sozialaren teorian izan da, teoria honek eskaintzen bait digu taldean ematen den ezagutzaren determinazio-maila desberdinen arteko lotura egiteko aukera.

Errepresentazio sozialaren teoriaren ekarpena esan daiteke bere FOKAPEN espezifikoa dela, teoria hau errealitatearen eraikuntza soziala fokatzeko era bat delako. Aipatu eraikuntzan kontutan hartzen dira DIMENTSIO KOGNITIBOAK zein DIMENTSIO SOZIALAK. Beraz, gizabanakoari, taldetasunari zein sozialtasunari dagozkionak.

Jodelet-ek ematen duen definiziora hurbilduz, ezaugarri berezi batzuk antzematen zaizkio Errepresentazio sozialari:

- a) Sozialki sortu eta erdibanatutako ezagutza;
- b) Izaera praktikoa duena;
- c) Giza ingurune jakin batean errealitate baltzua eraikitzen parte hartzen duena.

Jodelet-ek eskainitako definizioan ikus daitekeenez errepresentazio sozialaren dimentsio batzuk azaltzen dira, DIMENTSIO PRAGMATIKOA, FUNTZIONALA alegia, ERAIKUNTZA-MEKANISMOA eta DIMENTSIO SOZIALA.

Beste autore batzuek, eta horien artean Doise daukagu, errepresentazio sozialen eta faktore SOZIO-ESTRUKTURALEN arteko lotura estua azpimarratzen dute.

Bestalde, Di Giacomo-rentzat, errepresentazio sozialek duten IZATE EGITURATUA da aipagarri, aipatuz gainera hau dela, egituraketa alegia, lehenengo irizpidea errepresentazio soziala topatzeko.

Errepresentazio soziala hiru faktoreren emaitzatzat har genezake, hau da, OBJEKTUAREN errealitatea batetik, gauzatzen duenaren SUBJEKTIBITATEA bestetik, eta subjektu-objektuaren arteko harremana kokatzen den INGURUNE SOZIALA hirugarrenik.

Taldearen ikasketarako Errepresentazio sozialaren teoria erabiltzea egokia delakoan gaude. BATEZ ERE GURETZAT TALDEA ERAIKUNTZA SOZIALA DELAKO. Eta, Moscovici-k dioen bezala, giza taldeek inguruari buruz adierazpen batzuk sortzen dituzte, eta horien bitartez antolatzen dituzte taldearen barne-harremanak zein kanpo-harremanak. Adierazpen hauetara "Errepresentazio Sozialak" deitu izan zaie.

Antzera mintzatzen da René Käes (1977) honako hau dioenean: taldea, eginkizuna, taldekide eta testuinguruaren errepresentazio-sistema ardaztu ahala, taldea sortu, antolatu eta garatu egingo da.

TALDE-BARNEKO mailari dagokionez, errealitatearen interpretazio eta berreraikuntzarako erreferentzi-marku soziokognitiboa tajutzeko, taldekideek erdibanatzen dituzten pentsamendu-sistemek osaten dute errepresentazio soziala.

Taldearen errepresentazio soziala hauxe izango da: giza talde batek ingurune jakin batean talde bati buruz eraikitako ezagutza lau eta praktikoa.

Errepresentazioaren SUBJEKTUA soziala da, edo beste erara esanda, sozialki eraikitako talde ezagutza da errepresentazio soziala. Sozialtasunaren ezaugarri nagusietakoa pluraltasun edo aniztasunak sortua izatea da. Errepresentazioa sortzen duen pluraltasun edo aniztasuna bi eratara uler daiteke: ANIZTASUN DISTRIBUTIBO eta ANIZTASUN KOLEKTIBO gisara.

Jakinik ere talde-errepresentazio soziala eremu egituratua dela eta azterketa-maila (Doise, 1991) desberdinetatik datozen elementuen arteko egituraketa izango dela arestian aipatutakoa, ontzat eman genezake taldekideengan gauzatzen diren zenbait ezaugarri osaturik egongo dela errepresentazio soziala. Ezaugarri horiek honela gauza daitezkeelarik:

- a) Egitura pertsonal jakin bat duten taldekideak.
- b) Talde-bizipen jakin bat duten taldekideak.
- c) Jokabide sozialetatik datozen eta isladatzen diren ezaugarri soziokognitibo batzuetako taldekideak.

Maila guzti horien arabera jasotako informazioaren artikulazio desberdinek taldeen errepresentazio sozialak zelakoak diren jakiteko aukera emango digute.

Alderdi empirikoa

1. Sarrera

Talde-errepresentazio sozialaren berri jakitea da gure helburu orokorra,

eta jakinik errepresentazio hori objektu, subjektu eta ingurunearen baldintzapenen arabera antolatzen dela, hiru diseinu desberdin eratu ditugu.

Lehenik, FUNTZIONALITASUNAREN ERAGINAREN BERRI JAKITEARREN, talde-errepresentazio soziala objektuaren arabera zelan antolatzen den, hau da, talde desberdinen arabera, eta zehazki kuadrila, familia, lan-taldea eta bikotea errepresentazio-objektutzat hartuz.

Bigarrenik, errepresentazioak subjektuen arabera zelan antolatzen diren, hau da, objektu gisa talde-mota bakar bat hartuz, kuadrila hain zuzen. Atal honetan kuadrilaren errepresentazio soziala sakonki, ESTRUKTURALKI Digiacomoren hitzetan, aztertu nahi dugularik, hiru helbururen bila abiatuko gara; lehenik, teorikoki ulergarri diren errepresentazioen KOPURUA; bigarrenik, errepresentazioaren edukina osatzen duten elementuen EGITURAKETA, eta hirugarrenik, kanpo-baldintzen arabera talde-errepresentazio sozialen banaketa, edo teoriaren beraren hitzetan AINGURAKETAREN islada.

Hirugarrenik, talde sozial zehatze-tan aurreko talde-errepresentazio sozialak zelan isladatzen diren, hau da, eginkizun desberdina izanik zelako talde-errepresentazio soziala antzeman daitekeen talde sozial desberdinetan.

Kontutan izanik talde-errepresentazio soziala taldeari buruzko EZAGUTZA

dela, alderdi askotatik baldintzatua jakina, taldearen FUNTZIONALITASU-NAREN arabera talde-errepresentazio bereziak daudela ikusi nahi dugu. Gero, EZAGUTZA EGITURATUA denez, barne-egituraketaren berri jakitera abiatu gara. Azkenik, gazte-taldeen errepresentazioen arteko konparaketari ekingo diogu, bertan funtzionaltasuna eta egituraketa elkartzen direlarik.

2. "A" diseinua.- Talde-Errepresentazio sozialak objektuen arabera

Hauexek dira helburuak:

- 1- Talde-errepresentazio sozialean objektuaren indarra eta eragina aztertzea.
- 2- Objektu desberdinen artean talde-errepresentazio sozialaren dimentsio berdinak eta desberdinak.

Hipotesiak

1. Talde desberdinek, hau da, kuadrilak, familiak, lan-taldeak zein bikoteak, errepresentazio sozial desberdinak izango dituzte.

2. Guztietan emango da giza elkarketaren islada, eta errepresentazio sozialaren dimentsio nagusienetako baten antzera azalduz gainera.

3. Talde orotan ikusi ahal izango da errealtate sozialean betetako FUNTZIOEN arabera azalduko dela errepresentazio sozialaren beste ardatz nagusia.

4. Talde desberdinek izango dute giza elkarketaren isladan topagunea. Talde oro bereiztuko da funtzionaltasunaren isladan.

Datu-bilketarako ESTIMULU batzuk eman eta lagingaren ASOZIAZIO ASKEA jaso da.

Erabili diren estimuluak horrela aurkeztu dira:

“Mesedez, ezar itzazu burura etortzen zaizkizun lehenengo bost hitzak, ondorengo kontzeptuetan oinarrituz: Kuadrila; Familia; Lan-Taldea; Bikotea.”

LAGINAK honako ezaugarriak izan ditu: Donostiako Institutu bateko 571 ikasle; 13tik 20 urtera bitartekoak. Gizonezkoak 176 dira, 394 emakumezkoak diren bitartean.

Ikasketa-mailari dagokionez, BBB eta UBIn daude.

Jasotako erantzunen lehen azterketa egiteko SPAD, (Lebart eta Morineau 1985) erabili dugu. ASPAR izenez ezagutzen den etapa erabili ohi dugu. Ondoren, estimuluaren arteko konparaketa egin ahal izateko, ANCORSIM (Cornejo, 1988) programa erabili izan dugu.

Emaitzak eta konklusioak

Ondorengo lanetarako 20tik gorako maiztasunez azaltzen ziren hitzak jaso genituen.

Kuadrilari buruzko emaitzak

Kuadrilaren esparru semantikoari buruz konklusio erara esan daiteke, kuadrilaren kasuan hiru ingurune azaltzen zaizkigula. Lehenak, kuadrila egoera alaia, pozgarria, trufaleku gisara azaltzen digu. Bigarrenak, “berma sozial”-tzat jotzen du kuadrila. Eta hirugarrenak, alor ludikoa, algara, eta batez ere kanpora zuzendua gainera, kanpo-harreman ludiko-etarako tresna gisa. Lehenen aipatu dugun ingurunea eta hirugarrena LUDIKOTASUNAREN inguruan daude baina bata talde barrura zuzendua eta bestea kanporantz.

Laburbilduz, nahiz erantzunen maiztasunari zein banaketari so egin, BERMA SOZIAL eta LUDI-KOTASUNAZ loturik dago nagusiki kuadrila.

Familiari buruzko emaitzak

Familiaren esparru semantikoari buruz konklusio erara esan genezake, “MAITASUNA” eta “LAZTANA” jasotzen dituzten afektuzko loturak, gehi berma sozialari buruzkoak ingurune bat osatzen dutela.

“GURASO”, “ETXE”, “ISTILU” dira azpimarragarrienak beste ingurunea osatzerakoan.

Lehenengo inguruneak badu antzik kuadrilaren berma sozialaren ukitu horrekin, baina berezkoa da errolak eta istiluen bitartez familiaren egitura isladatzen digun bigarren ingurunea.

Laburtuz, BERMA SOZIAL, AFEKTU-BERMA eta EGITURAKETA ASIMETRICOaren erreferentziek osatzen dute familiaren eremu semantikoa nagusiki.

Lan-taldeari buruzko emaitzak

Lan-taldearen eremu semantikoari buruz esan, honako alorrak nagusitzen direla: bata, “BERMA SOZIALA”-rena, eta “EGIN-KIZUN”-arena bestea. Biak daude bata bestetik nahikoa hurbil. Beste alor bat “DIBERTSIOA”-rena da, eta azkenik BALORAZIO ONA suposatzen duten hitzena.

Laburtuz, BERMA SOZIALA, EGINKIZUNA, eta EGOERA EROSO eta alaia suposatzen dituzte ingurune nagusiek. Ikusten den lez, kasu honetan ere berma errepikatzen da, eta eginkizun propioa garbi antzematen da.

Bikoteari buruzko emaitzak

Bikotearen eremu semantikoari dagokionez, batez ere MAITASUNA eta SEXUA bezalako bi berezitasun ikusten dira. Alderdi berezienak ezpairik gabe, nahiz eta familiaren kasuan maitasunaren papera azaldu, baina inondik ere ez horrenbesteko eraginaz. Beste aldetik, elkar konfidantza edo berma dira nabarmentzen direnak. Taldekatze orotan bezala berma amankomuntzat azalduz.

	Kuadrila	Familia	Lan-taldea	Bikotea
1-Maitasuna	3.46	1.67	4.74	0.14
2-Laztana	2.54	0.49	4.07	0.71
3-Konfidantza	1.26	0.98	2.74	0.65
4-Ulerpena	1.78	0.72	3.70	0.61
5-Laguntza	1.18	1.41	1.01	2.06
6-Batasuna	1.83	0.48	4.16	2.98
7-Laguntasuna	0.44	2.35	1.52	1.49
8-Leialtasuna	1.58	1.94	3.81	0.21
9-Errespetua	3.27	0.62	4.49	0.66
10-Poza	0.75	1.31	1.78	1.27
11-Atsegina	3.26	1.54	1.15	3.55
12-Adiskidetasuna	2.89	5.06	0.02	4.88
13-Lagunak	0.23	3.95	1.64	3.62
14-Dibertsioa	0.06	3.42	2.42	2.36
15-Irrifarrak	0.69	3.94	0.78	3.65
16-Ongi	0.48	3.91	1.07	3.60
17-Dibertigarria	0.37	3.91	1.27	3.59
18-Etxea		0.40		
19-Ama		0.40		
20-Aita		0.40		
21-Berma		0.40		
22-Gurasoak		0.40		
23-Etxegiroa		0.40		
24-Anaia-arrebak		0.40		
25-Erriertak		0.40		
26-Elkartua		0.40		
27-Arazoak		0.40		
28-Lana			0.52	
29-Lankideak			0.52	
30-Ikaskela			0.52	
31-Elkarlaguntza				0.52
32-Ikasi			0.52	
33-Taldea	0.43			
34-Parranda	0.43			
35-Irten	0.43			
36-Neskalagunak	0.43			
37-Jendea	0.43			
38-Neskak	0.43			
39-Konpainia	0.43			
40-Sexua				0.49
41-Fideltasuna				0.49
42-Zoriona				0.49
43-Mutila				0.49

Kuadrila, familia, lan-taldea eta bikotearen arteko konparaketa

Lau taldekatze-motak, kuadrila, familia, lan-taldea eta bikotea alegia, eta horiei dagozkien maiztasun handieneko erantzunak, 20tik gorakoak hain zuzen, gurutzatuz kontinjentzi taula sortu dugu.

Kontinjentzi taula hori ANCOR-SIM izeneko korrespondentzi analisi faktorialaren bitartez aztertuz, jarraian azaltzen diren emaitzak jaso ahal izan dugu.

Informazio guztia hiru faktore edo ardatzen arabera metatu dugu. Lehenak, bariantzaren % 50,33 adierazten du, bigarrenak, % 27,18 eta hirugarrenak azkenik % 22,48. Denetara % 99,99 adierazten delarik. Estatistikoki informazioa esanguratsua dela aitortzen digu programaren irteerak.

Hiru dimentsioetako espazioan lau taldekatze eta erantzunen arteko distantzietan oinarrituz irits gintezke jakitera zeintzuk diren estimulu bakoitzak berekin dituen erantzunak, beheko taulan azaltzen den lez.

Lau estimuluren bereizgarritasunak atera daitezke goiko ezaugarri hauetatik, bertan ikusten baititugu bai erantzun bereziak, baita erdibanatuen artean gertuenekoak ere.

KUADRILARI buruz, harreman sozialetarako zein aisiarako errekurtsoak eskuratzen dituen erakunde sozialtzat har daitekeela aipa daiteke.

FAMILIARI buruz diogu; berma ematen duen erakunde soziala, status zein rol- edo paper-desberdintasunen arabera egituratua, eta bere bilakaeran gatazkak nozitzen duena.

LAN edo eginkizunen bat burutzekotan elkar laguntzarako erakunde solidario eta igualitariotzat isladatzen digute LAN-TALDEA.

Maitasuna oinarritzat hartuz eta sexu-harremanei lehentasuna emanez, komunikazio errazeko eta elkar ulermeneko erakunde gisa azaltzen zaigu BIKOTEA.

Antzekotasunekin amaitzeko aipa ditzagun lau estimuluetan erdibanatzen diren erantzunak: "KONFIDANTZA", "LAGUNTZA", "LAGUNTASUNA" eta "POZA" dira kontzeptu baltzuak. Kontzeptu hauei begiraturaz gero edozein taldekatzek oinarri-oinarrian eskaintzen duena antzeman genezake. Beraz, gazteek lakete taldekatzea.

"A" deitutako diseinuaren konklusioak

Lehenengo hipotesia frogatzen da, zeren garbi azaldu baita objektu desberdinen, hau da, taldekatze desberdinen arabera, jasotako informazioa hein handi batean desberdina izan dela. Beraz, taldekatze bakoitzak FUNTZIONAL-TASUNAREN arabera talde-errepresentazio sozial berezia duela esatera irits gintezke.

Bigarren hipotesiari dagokionean, egia da erantzunetan giza elkarketari

zegokion islada azaldu dela lau taldekatzeetan.

Hirugarren hipotesiaz ere esan funtzionaltasun sozial bat antzematen dela lauetan. Horretarako estimulu bakoitzak izan dituen erantzun bereziak, eta arestian adierazitako profilak ikusi besterik ez dago.

Laugarren hipotesia frogatzen da. Egia da alderdi inbariantea edo egonkorra bigarren hipotesian aipatutakoa dela, zeren adibidez lau taldekatze horiek erdibanatzen dituzten erantzunek horrela adierazten baitigute.

Bestelako interpretaziorik ere egin daiteke, eredu teoriko baten arabera, alegia. R. Käes-en taldekatzeetatik abiatuz (Käes, 1977; Ayestarán, 1980), kulturalki ematen diren hiru taldekatze nagusiz hitz egiten digu, adieraziz gainera talde zehatzen errepresentazio soziala antolatzaile soziokulturalen arabera egituratuko direla. Aztertutako lau estimuluak parez pare jarriz gero hauxe aipa genezake:

- a) Kuadrila dela “talde kristau”-aren ezaugarrietatik gertuen pausatzen dena, hau da, hierarkia eza eta harmonia nagusituz.
- b) Familia dela “talde hebraitar”-aren ezaugarrietatik gertuen pausatzen dena, hierarkia eta harmonia nagusituz.
- c) Lan-taldea dela “talde zelta”-aren ezaugarrietatik gertuen pausatzen dena, hierarkia eza eta laguntza zein kolaborazioa nagusitzen baitira.

3. "B" diseinua. Kuadrilaren errepresentazio sozialak: Kopurua, Barne-egituraketa, kanpo-mugatzaile batzuen eragina

Aurreko diseinuan aztertutako objektu sozialetatik bat, kuadrila hain zuzen, sakonago aztertzea da orain helburu nagusia.

Dena dela, hiru ditugu helburu zehatzak:

- 1 Kuadrilaren errepresentazio sozial ulergarri zenbaitzuz hitz egin daitekeen jakitea.
- 2 Errepresentazio edo diskurtso horien barne-egituraketa nolakoa den jakitea.
- 3 Zer neurritan kuadrilaren errepresentazio sozialak kanpo-baldintzen arabera dauden.

Hipotesiak

- 1 Kuadrilaren Errepresentazio Sozial bi daude.
- 2 Aldagai psikosozialen puntuaketa altuek osatuko dute Kuadrilaren Errepresentazio Sozial horietako bat. Eta puntuaketa bajuek osatuko dute Kuadrilaren beste Errepresentazio Soziala.
- 3 Kuadrilaren Errepresentazio Soziala aldagai soziokultural eta sozioestrukturalek baldintzatuko dute.

Datu-bilketarako erabili dugun neurtesna GALDESORTA izan da.

Galdesorta hori Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia Sozialeko Sailak aurrera daraman zenbait lanetarako sortua da, hain zuzen.

Aldagai psikosozialak auke-
ratzeko orduan hiru mailako
informazioa jasotzea espero genuen.
Psikologia sozialean hain maiz
aipatzen eta ezagun bihurtu diren
azterketa-mailen harian (Doise, 1991).
Taldearen gizabanakoei buruzko
maila, taldeari berari dagokion
maila eta taldean ematen den
alor soziokognitiboari dagokion
maila azkenik.

Norbanakoaren maila deitutakoan
bi aldagai ditugu;

- a) Nortasun pertsonala.
- b) Pertsonarteko jarrera.

Taldeari dagokion mailan beste bi
aldagai ditugu;

- a) Talde-egitura.
- b) Talde-kohesioa.

Alor soziokognitiboari dagokion
mailan hiru aldagai ditugu;

- a) Gatazkarekiko jarrera.
- b) Erantzun-egozpena.
- c) Emozioen erabilpena.

Galdesortan aldagai bakoitza bost
itemetan banaturik azaltzen da, item
oro kontrajarritako bi esaldiz
isladatuz. Item-en norabidea
batezbeste orekatua da. Erantzuna

zazpi puntuko Likert eskala baten
bidez emango da.

Galdesortaren eskalen fidaga-
rritasuna aldez aurretik frogatua
dago. Eskalen aldagaien arteko
koerlazio-indizeak ondoren aipatuak
irten ziren:

Nortasun pertsonala	(IP) = 62
Pertsonarteko jarrera	(AI) = 64
Talde-egitura	(CG) = 74
Talde-kohesioa	(CH) = 48
Gatazkarekiko jarrera	(CO) = 70
Erantzun-egozpena	(AT) = 63
Emozioen erabilpena	(FM) = 71

LAGINA 1.299 lagunekoa izan da.
Adoleszenteak Donostia inguruko lau
ikastetxeak. 460 gizonezko eta 838
emakumezko. Ikasketak batzuek
euska-raz eta besteek gaztelaniaz egin
dituzte.

Errepresentazioen kopurua eta edukina

Lagin osoa hartuta, SPSSren
Quick Cluster-a egingo dugu, diskurtso
esanguratsuen kopurua aurkitu asmoz.

Adierazgarritzat har genitzakeen bi
multzo azaltzen zaizkigu. Multzo
bietan aldagai guztien puntuaketak
esanguratsuki bereitzen dira.

Bi clusterrek jende-kopuru
desberdinak biltzen dituzte, batean 916
subjektu jasotzen baitira, eta bestean
258.

Goiko datuen arabera, uste dugu
kuadrilaren bi errepresentazio sozialez
hitz egitea zilegi dela. Kuadrilari buruz

KUADRILAREN ERREPRESENTAZIO SOZIALAK

Aldagaiak	1. Klusterra (916)	2. Klusterra (258)	Signifikatibitatea
Taldekideen arteko (AI) jarrera. 1-Isolatzailer 7-Kooperatzaile	5.222	3.913	.000
Talde hierarkia (CG) jarrera. 1-Hierarkizatua 7-Igualitaria	6.055	3.358	.000
Erantzun-egozpena (AT) 1-Pertsonengan 7-Taldean	4.497	3.298	.000
Gatazkarekiko (CO) jarrera. 1-Ekidin 7-Aurre eman	5.268	3.490	.000
Nortasuna (IP) 1-Ezkorra 7-Baikorra	6.050	3.249	.000
Emozioen (FM) jestioa. 1-Konkretua 7-Abstraktua	4.751	3.258	.000
Talde-Kohesioa (CH) 1-Eskasa 7-Haundia	5.349	2.804	.000

gehiengoaren eta guttiengoaren errepresentazio sozialaz hain zuzen.

kokatu behar dugu: balio absolutuetan eta gehiengoarekiko distantzian.


Gehiengoak duen kuadrilaren errepresentazio sozialaren edukinari buruz ondoko hau esan daiteke:

- a) Nortasun baikor eta jarrera kooperatzailekoa dela taldekidea gehiengoarentzat.
- b) Taldekideen arteko berdintasuna eta talde-kohesio handiak isladatzen dituela gehiengoak bere kuadrilaren errepresentazio sozialean.
- c) Taldearen erantzun-egozpena, emozioen erabilpen abstraktua, testuinguratuz alegia, eta gatazkari aurre emanez azaltzen da alderdi soziokognitiboa.

- a) Beste ezer baino lehen, adierazi batezbesteko puntuaketa gehienak, bat izan ezik, 3 eta 4 artean kokatzen direla, eta azken hori ere 3tik oso gertu. Beraz, kontutan izanik 1etik 7ra bitartean atera zitezkeela, erdi parean kokatzen dira guttiengoaren emaitzak. Horrek esan nahi du interpretatzeko orduan ezingo dela gehiengoaren multzotik zeharo polarizatua dagoenik esan, desberdindurik baizik.

- b) Guttiengoak kidegoari buruz mantentzen duen iritziak dio, nortasuna ezkor antzean dutela, eta elkarren arteko jarrera isolamendurantz kooperaziorantz baino gehiago hurbiltzen dela.

Bestalde, kuadrilari buruz guttiengoak duen errepresentazio sozialaz ongi jabetzeko bi puntutan



- c) Hierarkizazioranzko joeraz eta kohesio eskaseko taldeaz hitz egiten digu guttiengoak.
- d) Aldagai soziokognitiboei buruz, erantzun-egozpena pertsonengan kokatzen, emozioen erabilpena konkretuki egiten, eta gatazkaren aurrean ukapena onarpena baino indartsuago bultzatzen du guttiengoak.

Adierazitako hipotesiei buruz eta atal honen konklusio gisara honako hau diogu:

- a) Lehen hipotesia frogatzen dela, beraz, kuadrilaren errepresentazio sozial esanguratsu bi ditugula.
- b) Bigarren hipotesia hein handi batean ere frogatzen da, hau da, aldagaien puntuaketa altuek osatzen dute errepresentazio bata, eta laburrek bestea. Baina esan beharra dago, azken hauek ez direla hain laburrak izan, 1etik 7ra bitarteko

continuum horretan ia erdi parean kokatzen baitira. Beraz, kuadrilaren errepresentazio bi bai, baina ez gure iragarpenetan bezain polarizatuak, desberdinak baizik, esanguratsuki hori bai.

Kuadrilaren errepresentazio sozialen BARNE-EGITURA jakitera iristeko asmoz, kuadrilaren errepresentazio sozial bietan kokatzen diren subjektuak bereiztu ditugu. Ondoren, multzo biek, bakoitza bere aldetik hartuz, azterketa faktoriala egin dugu, eta faktorialaren emaitzen berri emango dugu, pentsatuz era horretan errepresentazio bakoitzaren barne-antolamendura hurbil gintezkeela.

Gehiengoak azaltzen duen kuadrilaren errepresentazio sozialaren faktorialean ikus daitekeenez, bi faktoretan biltzen da informazio nagusia. Lehenengo faktoreak bariantzaren % 28 jasotzen duen bitartean, bigarren faktoreak bariantzaren % 18 jasotzen du.

Lehenengo faktorea gehien saturatzen duten aldagaiek honakoak dira:

1-Talde-hierarkia.	(CG)	.782
2-Nortasun pertsonala.	(IP)	.756
3-Taldekiddeen arteko jarrera.	(AI)	.467
4-Gatazkarekiko jarrera.	(CO)	.436

Bigarrenengo faktorea gehien saturatzen duten aldagaiak honako hauek dira:

1-Emozioen gestioa.	(FM)	.761
2-Gatazkarekiko jarrera.	(CO)	- .555
3-Erantzun-egozpena.	(AT)	.538
4-Talde-kohesioa.	(CH)	.532

Bi faktore hauen esanahia aztertzerakoan bi dimentsiorekin egiten dugu topo. Lehenengo faktorea “erlazio” maila gisara izenda daitekeena da. Eta bigarren faktorea “erreflexio” maila gisara izenda daitekeela dirudiena.

Gehiengoaren kuadrilaren errepresentazio sozialaren “erlazio”-dimentsioaren ezaugarriak honakoak dira:

Dimentsio garrantzizkoena izatea, honetan azaltzen baita gehiengoaren artean adostasun handiena. Faktorea gehien saturatzen duten aldagaiak kontutan izanez gero, ohar gintezke, gehiengoak kuadrila irudikatzen duela, lehen-lehenik talde igualitario modura; bigarrenik, nortasun baikorreko kidegoz; hirugarrenik, jarrera kolaboratzaileko kidegoz; eta laugarrenik, eztabaida onartzen den leku gisara.

Bestalde, “erreflexio”aren dimentsioaren ezaugarriak honakoak dira:

Garrantziari dagokionez bigarren izatea, zeren gehiengoaren artean dimentsio honetaz ez baitago “erlazio”aren kasuan bezain besteko adostasunik. Halere ezin uka dimentsio honen garrantzia eta pisua. Bertan isladatzen da emozioen erabilpen abstraktua lehenik, gatazkaren saihestea bigarrenik, taldearen erantzun-egozpena hirugarrenik eta talde-kohesioa laugarrenik.

Dimentsio biak zelako elkar harremana duten jakinez gero, errepresentazioaren BARNE-DINAMIKARANTZ hurbil gintezkeela uste dugu. Horretarako gatazkaren bitartez egiteari deritzogu aproposena. Gogora ekarri gatazkarekiko jarrera lehenengo faktorea positiboki saturatzen azaltzen zela, eta bigarrena negatiboki saturatzen. Beraz, gatazkaren gorabeherak eragin desberdinak izango ditu dimentsio bietan.

Adibidez, esan daiteke, gatazkaren onarpenaren gorakadak berekin dakarrela: “erlazio” dimentsioa areagotzea eta “erreflexio” deiturikoa murriztea, beste era batera esanda, taldekideengan fokatzera nagusiki eta ez hainbeste taldearengan.

Bestalde, gatazkaren onarpenak behera egiteak, “erlazio” dimentsioa murriztu eta “erreflexio” deitutakoa handitu egiten du. Ondorioz taldetasunaren lehentasuna nagusituko litzateke maila pertsonalaren kalterako.

Gehiengoaren kuadrilaren errepresentazio sozialaren barne-egituraren KONKLUSIO gisara hauxe diogu: kuadrila bi dimentsioko ingurune gisa ikusten duela gehiengoak, non: a) erlazio-maila nagusitzen den; b) egoera igualitarioa gatazkaren onarpenarekin batera azaltzen den; c) emozioa zein egozpena testuinguratzeak, hau da emozioak abstraktuki eta talde-egozpenak, gehi kohesio handiak, hau da talde-balorazio haundiak gatazkaren onarpena guttitzera

daramaten. Azkenik arestian aipatutakoaren arabera hauxe ondoriozta daiteke, gehiengoaren kasuan bi dimentsioak elkarren menpe daudela.

Guttiengoak azaldu duen errepresentaziora joaz ikus daiteke, kasu honetan ere, bi direla informazio nagusia biltzen duten faktoreak. Lehenengoak bariantzaren % 26 jasoz, eta bigarrenak berriz % 21.

Bi faktore hauen esanahia aztertzerakoan ikus daiteke gehiengoaren errepresentazioaren kasuan bezala biltzen direla aldagaiak. Beraz, hemen ere bi dimentsioak lehen aipatutako berberak izango dira, "erlazio" eta "erreflexio"-arenak hain zuzen.

Bi errepresentazioak hartuz, beren barne-dinamikari buruz aipa daitekeenik bada:

- 1- Bina dimentsio beha daitezke, eta gainera hein haundi batean bietan aldagai osatzaileak

berdinak dira. Beraz, barne-egitura oso antzekoa dutela diogu.

2- Dimentsioen lehentasunean ez datoz bat, zeren gehiengoak erlazio-maila baitu nagusi, guttiengoak erreflexio-maila duen bitartean. Beraz gehiengoak taldekideari, hierarkia ezari eta gatazka-onarpenari buruz adostasun handiagoa du, eta alderdi soziokognitiboek zein gatazkaren saihesteari buruz adostasun handiena guttiengoak azaltzen du.

3- Barne-egituraren dinamikaz ere esan nahikoa parekoa dutela, hau da, erlazio eta erreflexio dimentsioak gatazkaren inguruan pibotatzen jarriz gero, bai gehiengoak eta bai guttiengoak dinamika berdina daramate, batak gora eginez gero besteak beherantz egiten duela alegia.

Lehenengo faktorea gehien saturatzen duten aldagaiak honako hauek dira:

1-Emozioen gestioa. (FM)	.759
2-Talde-kohesioa. (CH)	.677
3-Erantzun-egozpena. (AT)	.677
4-Gatazkarekiko jarrera. (CO)	- .530

Bigarren faktorea gehien saturatzen dutenak honakoak:

1-Talde-hierarkizazioa. (CG)	.771
2-Nortasun pertsonala. (IP)	.729
3-Pertsonarteko jarrera. (AI)	.537
4-Gatazkarekiko jarrera. (CO)	.106

Kategoria sozialen eragina kuadrilaren errepresentazio sozialean

Kategoria sozial desberdinetako pertenezkiak berekin daramatza gizarteko egituraren zama eta eragina. Gure terminoetara ekarriz, kuadrilaren errepresentazio desberdinak topatuko ditugu errepresentazioaren egileak sare eta kategoria sozialean duen kokapenaren arabera.

Goikoak kontrastatzearen hizkuntza (Kulturen adierazle izan daitekeen neurrian), sexu eta maila ekonomiko-kulturalaren arabera kuadrila zelan antzeman daitekeen ikusi dugu.

Kuadrilaren errepresentazio soziala eta kategoria sozialen eraginari buruzko azpialar honetako konklusio gisara ondokoa adierazi behar da:

- 1- Kategoria orotan azaltzen dira bi errepresentazioetan kokatzen diren subjektuak.
- 2- Kategoria guztietan gehiengoa kokatzen da balio altuetan, eta zehazkiago esanaz laurden bat inguru behekoetan eta hiru laurden goikoetan.
- 3- Kuadrilaren HIERARKI MAILA ez da aldatzen kategoria soziala bat ala bestea izan, hau da denek oso antzera ikusten dute hierarkia maila, eta egia esan nagusiki "TALDE IGUALITARIO" modura.
- 4- Badira desberdintasun batzuk kategorien arabera, nahiz eta

doi-doi ezin aplikatu kuadrilaren errepresentazio bat ala beste inolako kategoriari. Baina hizkuntza, sexu edota maila ekonomiko-kulturalaren arabera ñabardura garrantzizkoak antzematen dira.

4. Taldeak bere buruaz eraikitako errepresentazio sozialak eginkizunaren arabera

Helburua

Gazte talde erreal desberdinen errepresentazio sozialen arteko konparaketa egin nahi dugu, eta jakin bereziki, batetik ea nolabaiteko printzipio antolatzaileak aurkitzen dugun haien kokapen eta errepresentazio sozialean. Eta bestetik, taldeen errepresentazio sozialaren eta beraren eginkizunaren artean izandako harremana.

Hipotesiak

- 1- Aurreko ikerketan ikusi dugunaren arabera, eta Amerio-k (1991) gazte-taldeekin eginiko zenbait ikerketatan oinarrituz, emozioen erabilpenek eta gatazkarekiko jarrerak desberdinduko dituzte taldeak.
- 2- Bizitzaren egoerak aztertzerazuzentzen diren taldeak, hau da konfirmazio-taldeak, emozioen erabilpen abstraktuago, eta gatazkaren saihestegatik bereiziko dira. Eginkizun kognitiboa dutenez gero, horrek berak eskatuko die emozioak kontrolatzea.

3- Kirol-taldeak emozioen elaborazio eskasago eta gatazkaren saihesteagatik bereiztuko dira. Gatazka taldearen barnetik talde artera zuzenduko da.

4- Kuadrilak emozioen bapatekotasun eta gatazkaren onarpenagatik besteengandik bereiztuko dira. Taldeen arteko konparaketak lehenetik hartzen ez duenez gero, talde barnean errazago azalduko da gatazka.

5- Hezkuntza bereziko taldeak ere gatazka saihestu eta emozioen elaborazio eskasaz nabarmentzen dira.

Aurreko atalean erabilitako GALDESORTA berbera dugu oraingo atalean.

Kasu honetan “aniztasun kolektiboa” deritzon ezaugarriak betetzen ditu LAGINAK. Beraz, talde bakoitzeko taldekideen artean elkarrekintza zuzena ematen da.

Talde guztietako partaideak adolezenteak dira eta neska-mutilen arteko kopurua orekatua da. Donostia eta Bilbo inguruan topatu dira talde guztiak.

Konfirmazio bidean Eliza Katolikoak antolatutako lau talde izango ditugu, eskolako porrota jasan dutenentzat antolatzen diren heziketa bereziko beste lau talde, kuadrila gisara biltzen diren hiru talde, kirol egiteko biltzen diren bi talde, skout talde bat eta aisia edo denbora librearen antolakuntzarako biltzen diren beste bi.

Azterketa Estatistikoa

Goian aipatutako taldeen arteko konparaketa egin nahirik, Ancorsim programa estatistikoa erabili dugu.

Ancorsim programaren bitartez aztertu dugun matrizea aldagai orotan taldeek zuten batezbestekoarekin osatu dugula esan behar da lehen-lehenik. Beraz, batezbestekoa hartu da taldeen erantzunen adierazle gisara.

Informazioa hiru ardatzetan bildu da.

1. ardatzean bariantzaren % 47,96.
2. ardatzean bariantzaren % 20,49.
3. ardatzean bariantzaren % 15,78.

Zero hipotesia baztertzen da zeren:


CHI-2: 296,09 eta BETA: 21,72

Horrela esan daiteke lerroen eta zutabeen artean harreman estatistikorik egon, badagoela.

Datuen irakurketak ondoko ondoriotara eramán gaitu.

Balioei begiratzuz gero hauxe esan daiteke:

- a) Balorazio handiena jasotako aldagaia “CG” da, beraz, talde igualitariorantz hurbiltzen dira taldeak beste inora baino gehiago. Izan ere, denek altu puntuatu baitute, beraz lagin honetan talde igualitarioak isladatzen dira.



b) Balorazio murrizta jaso dutenak “FM” eta “CO” aldagaiak izan dira, hauen bariantza handiagoa delako.

Lehenengo ardatzari so eginez, bi ertzetan “FM”, emozioen erabilpen abstraktua alegia, eta “CO”, gatazkaren onarpena hain zuzen, kokatzen direla ikusten da. Beren kontribuzio absolutuek markatzen digute ardatzaren finkapenean izandako eragina. Horrela, bada, lehenengo ardatzak, bariantzaren % 47,96 adierazten duenak, polaritate nagusi bat azaltzen digu; emozioen erabilpen abstraktua ala gatazkaren onarpena aurrez aurre.

Aldagaien informazio adierazgarriena uste dugu lehenengo bi faktoreak gurutzatuz hartzen dela. Gainera, triangelu baliagarri bat eskaintzen digute. Aipatu triangeluaren hiru erpinetan aldagai hauexek egongo lirarteke: “CO”, gatazkaren onarpena, “FM”, emozioen erabilpen abstraktua, eta “IP”, nortasun baikorra. Gainontzeko aldagaiak triangeluaren erdialdean kokatzen dira, oro har baltzuenak direla esan daiteke, eta batez ere ez direla bereizgarrienak.

Emaitza orokorretara iristeko asmoz, bi ardatz garrantzitsuen arteko gurutzaketan taldeen kokapena jakin nahi dugu.

Lehenengo eta bigarren ardatzen gurutzaketaren grafikoan hiru gune nagusi beha daitezke: Konfirmazio taldeak osatutakoa bat, “FM”-tik gertu. Kuadrilak eta skout taldeak osatutakoa

bestea, “CO”-tik nahikoa gertu. Heziketa bereziko taldeak, aisia-taldeak eta kirol-taldeak osatutakoa hirugarrena “IP”-rengandik gertuen eta “FM” zein “CO”-tik urruti kokatzen direlarik.

Konklusioak

Eginkizun desberdineko hamasei talde erreal elkarren artean konparatu ondoren esan genezake antzeman daitekeela printzipio antolatzailearik. Izan ere, hiru aldagai bereizle modura azaltzen dira, “FM”, emozioen erabilpen abstraktua (elaboratua) ala konkretua (bapatekoa), “CO”, gatazkari aurre eman ala saihestu, eta “IP”, nortasun baikorra ala ezkorra. Gainontzeko aldagaietan antza da nagusi. Beraz, guk aukeratutako talde motak kidegoaren arteko berdintasuna, jarrera kolaboratzailea, talde-kohesio handia eta taldearen erantzun-egozpena talde-errepresentazioaren elementu baltzuak bezala agertzen dituzte. Bestalde, eta gehienetik guttienera, emozioen erabilpenean, gatazkarekiko jarreran eta nortasun pertsonalean bereizten dira. Azken batean, aldagai haiek berdintzen dituzte taldeak, eta hauek bereizten.

Taldeak banan-banan konparatzeaz aparte, eginkizunaren arabera eginez gero antzematen da nolabaiteko homogenotasuna eginkizun bereko taldeen arteko erantzunetan. Hiru multzo nagusi bereizten dira: konfirmazio-taldeak, homogenotasun handienekoak eta emozioen erabilpen abstraktu edo elaboratuagatik besteengandik bereizten direnak,

eta gatazkaren onarpenaren urrutien kokatzen direnak lehenik; kuadrilak eta skout taldea bigarren, zeinak gatazkaren onarpenaz eta emozioen erabilpenaren bapatekotasunagatik bereizten baitira; eta heziketa bereziko, aisia edo denbora askeko, eta kirol-taldeak osatzen duten hirugarren multzoa, zeinak emozioen erabilpen abstraktutik zein gatazkaren onarpenetik urruti kokatzen baitira. Era berean, azken talde hauek nortasun pertsonalaren aldagaia agertzen den lekutik gertuen kokatzen direnak dira. Beraz, taldearen errepresentazioa sozialaren eta eginkizunaren artean badagoela harremanik ondoriozta daiteke, edota bestela esanda, taldearen eginkizunak taldeak bere artean mantentzen duen diskurtsoa mugatzen duela, taldearen alderdi batzuk potentziatuz eta beste batzuk murriztuz. Zeintzuk potentziatu eta zeintzuk murriztu inguruneko antolatzaile soziokulturalek aginduko dute neurri handi batean. Adibidez, elizak antolatzen dituen konfirmazio-taldeak, kezka intelektuala eta harmonia bultzatzeko taldeak dira gehienetan, eta ikusten denez hemen ere ezaugarri horiekin irtetzen dira. Kuadrilak gure ingurune kulturalean harreman pertsonala eta berma soziala bultzatzeko sortzen dira, eta hemen azaltzen den bezala emozioak bestelako talde-motatan baino bapatekotasun handiagoz agertzen dira eta talde barneko gatazka ere gehiago onartzen da. Heziketa-, kirol edo aisia-taldeek helburua berengandik kanpo dute. Batak ezagupen objektiboen jabetza, beste taldeekiko konpetizioa

besteak, eta ariketen bitartez talde-bizitza alaia eta harmoniotsua hirugarrenak. Hirurek desegoki ikusten dituzte talde barneko hausnarketa, elaborazioa talde barneko gatazka. Beren diskurtsoan ere horrela erakusten digute.

Hipotesiei dagokienez, hauxe esan behar da:

- 1- Lehenengo hipotesia frogatzen dela, hau da, emozioen erabilpenak eta gatazkarekiko jarrerak bereizten dituzte taldeak.
- 2- Bigarren hipotesia frogatu egiten da, beraz, konfirmazio-taldeak emozioaren erabilpen abstraktoago eta gatazka saihestegatik bereizten dira.
- 3- Hirugarren hipotesia frogatu egiten da, hau da, kirol-taldeak emozioen elaborazio eskasa eta barne-gatazka saihestea dute ezaugarri.
- 4- Laugarrena ere frogatzen da. Izan ere, lagina osatzen dutenen artean, kuadrilak dira emozioa bapatekotasun handien eta gatazkaren onarpen handiena dutenak.
- 5- Bostgarrena frogatu egiten da, zeren hezkuntza bereziko taldeak emozioen erabilpen abstraktuan zein gatazkaren onarpenean eskas azaltzen baitira.

Konklusio orokorrak

Tesiaren helburua, eta helburu nagusia taldearen ikerketa egitea izan da. Horretarako, lanabes gisa, Errepresentazio Sozialaren Teoria aukeratu genuen. Teorigile zenbaitzuren esanetan benetan egokia, eta gure ustez ere urrats aberatsa izatea, dira aukeraren arrazoiak.

Errepresentazio Sozialaren Teoriatik abiatuz gero, taldea eraikuntza soziala da. Eraikuntza hori ezagutza-mailan ematen da, baina ezagutza “beroan” esango genuke, zeren ez baita gelditzen berbaldi hutsean, emozio, jarrera eta jokabideekin zerikusia duen ezagutza delako.

Dena den, talde-errepresentazio soziala den ezagutza horren berri jakitearren, ondoko hausnarketei erantzun bat aurkitu behar zaie. Lan horretan saiatu gara tesi honen bilakaeran. Besteak beste, honakoak jakin nahi izan ditugu:

- a) Eraikuntza bat ala bat baino gehiagoz hitz egin behar den.
- b) Eraikuntza sozial hori zelako elementuz osaturik dagoen.
- c) Eraikuntza sozial horretako erdigunean kokaturik edo zimentarri-papera betetzen duten elementuak zeintzuk diren. Esate baterako, talde-errepresentazio sozialaren nukleoan zer kokatzen den.

d) Talde desberdinen eginkizunak zelako eragina duten eraikuntza sozial horretan.

e) Eraikuntza sozialaren elementuen mugaketa sozialak, hau da, talde-errepresentazio soziala nola ainguratzen den giza kategoria desberdinetan.

A) Jende gazteari familia, kuadrila, lan-taldea eta bikoteari buruz, zer pentsatzen zuen galdetu diogu, eta erantzunak aztertu ondoren hona hemen topatu ditugun konklusioak:

- a) Talde orok, berdin dio zelakoa den, errepresentazio sozialaren elementuen artean “berma soziala”-ri dagozkion batzuk azaltzen ditu. Beraz, talde ororengan antzeman daiteke berma sozialaren islada.
- b) Talde bakoitzak du bestalde, funtzionaltasun sozialaren arabera errepresentazio sozialean elementu batzuk, besteengandik bereizten dutenak.
- c) Beraz, taldeen unibertso semantikoak bi esparru nagusiz osatua dago, talde orori dagokiona eta funtzionaltasunari lotua.

Konklusio hauek bat datoz Abric-ek 1987an aipatzen dituen bi dimentsioez. Bata funtzionala, eginkizunaren eraginkortasunari itsatsia, eta bestea arautzailea, objektu sozialari dagozkion esterotipoei itsatsia.

B) Kuadrila ikasketa-objektu gisa espreski hartu dugunean, galdesorta erabiliz, hiru helburu genituen: talde-errepresentazioen kopurua, elementuen arteko barne-egituraketa eta kanpo-mugatzaileen eragina.

Lehenengoak, hau da, kuadrilaren errepresentazio sozialen kopuruaren ikerketak, bi daudela esatera garamatza. Bata, gehiengo nagusi batena hain zuzen, nortasun pertsonal baikor, taldekideekiko jarrera kolaboratzaile, talde igualitario, talde-kohesio handi, gatazkari aurre ematean, taldearen erantzun-egozpena eta emozioen erabilpen abstraktoa dituen. Bestea berriz, guttiengoarena alegia, nortasun pertsonal ezkor eta taldekideekiko jarrera isolatzaile antzean, talde hierarkizatu eta talde-kohesio eskaseko, gatazka saihestea, kidegoarengan erantzun-egozpena eta emozioen erabilpen jakina azaltzen dituen.

Errepresentazioen BARNE-ANTOLAKUNTZA eta DINAMIKARI buruzko emaitza aski interesgarria iruditzen zaigu. Bi dimentsio azaltzen dira, "erlazio" eta "erreflexio" izenda daitezkeenak, bai gehiengoan eta bai guttiengoan. Beraz, talde ororetan ematen dira, eta bi indarren berri ematen dute. Elkarren arteko harremana ongi uler daiteke gatazkaren arabera pibotatzen jarriz gero. Bestelakoetara joan aurretik ekar ditzagun gogora dimentsio bakoitza saturatzen duten aldagaien zerrenda.

Erlazio dimentsioa saturatzen duten aldagaiak honakoak dira:

- 1- Talde igualitarioa.
- 2- Nortasun pertsonal baikorra.
- 3- Taldekideen arteko jarrera kooperatzailea.
- 4- Gatazkari aurre ematea.

Erreflexio dimentsioa saturatzen duten aldagaiak honakoak dira:

- 1- Emozioen erabilpen abstraktoa.
- 2- Gatazka saihestea.
- 3- Taldearen erantzun-egozpena.
- 4- Talde-kohesio handia.

Hemen bi gauza dira azpimarragarrienak; bata, dimentsio bakoitzean azaltzen diren aldagaien esanahien nondik norakoak, eta gure ustez, hemen gizabanakoa ala taldearen lehentasuna dago jokoan, kontutan izanik biak daudela present talde ororetan. Bigarrena, eta aurrekoarekin estuki lotuta, gatazkak jokatzen duen papera da, zeren honen gorabeherak mugatzen baitu taldearen lehentasuna nagusitzea.

Kanpo-baldintza eta mugatzaileei buruz, hau da, kategoria sozialetako pertenenziaren eraginari buruz haxe aipa daiteke: batetik, kategoria denetan aldagai baltzuen hierarkia eza azaltzen dela, beraz, Moliner-en (1988) emaitzekin ados geundeke. Horrezaz aparte, bestelako aldagaien aldaketek deigarrien dutena haxe da: maila ekonomiko-kultural xumea zein euskaldungoa direla talde barneko gatazka gehien onartzen dutenak, eta bestalde emakumeak erreflexio-ahalmen handiagoz azaltzen direla.

C) Talde erreal batzuei beren buruaz galde egin diegunean jasotako emaitzak zenbait konklusio interesgarritara eramán gaituzte:

- a) Batetik, puntuaketa altuak ematen dira gehienbat, beraz, aukeratutako laginaren artean nolabaiteko antza badago, ezin uka, eta gainera arestian aipatu gehiengoaren talde-errepresentazioaren gertu daude.
- b) Bestetik, bi aldagaien arabera bereizten dira nabarmenki taldeak. Emozioen erabilpen eta gatazkarekiko jarreraren arabera, hain zuzen.
- c) Taldeen kokapena eta eginkizunaren arteko lotura. Arestian ikusi bezala, “Konfirmazio” taldeak ezaugarri bat ematen dien ingurune batean kokatzen dira, “Kuadrila eta Skout” taldeak bestelako ezaugarri apaindura eskaintzen duen ingurunean eta “Aisia, Heziketa eta Kirol” taldeak aurrekoengandik bereizturiko kokapenean.

Sintesia

Gure ustez aipatutako emaitzetatik deigarriena zer den esatekotan honako hau adierazi beharko genuke:

- a) Gizartean jokaturako funtzioaren eragina taldearen errepresentazio soziala eraikitzerakoan. Adibidez, familia eta kuadrilaren artean badaude desberdintasun nabariak unibertso semantikoa adierazterakoan. Familian fun-

tzionalki jokutzen duten dimentsioek, esate baterako hierarkia edo gatazkak, kuadrilan, berriz, ez dira azaltzen zeren ez baitute familian bezalako betebeharririk, beraz, funtzionaltasun barik.

- b) Kuadrilaren errepresentazio sozialaren kasuan barne-dinamika, bi dimentsioen artekoa, hau da erlazio eta erreflexioen artekoa da. Eta bata ala bestea bultzatzeak dakarrena ere oso kontutan izatekoa suerta daiteke, zeren erlazioaren dimentsioa bultzatzeak talde-mota bat baitarama, talde barneko harremana eta kidegoaren garrantzia areagotuko duena alegia, eta erreflexioa bultzatzeak alderantziz, hau da taldetik kanpo ematen denaren garrantziaren areagotzea edo taldeak bere osotasunean lehenatasuna hartzea.

Kuadrilaren kasuan ere deigarria da, lehendik aipatua izan arren, taldekideen arteko hierarkia-ezaren maila, nahiz eta edozein kategoria sozialetako pertenezkiaren arabera aztertu, Beraz, horrek egituraren erdigunean zein elementu dagoen esaten digu.

- c) Halaber, interesgarria da jakitea, talde errealak beren buruaz pentsatzerakoan zertan bereizten diren. Izan ere, emozioen erabilpena (testuinguratuz ala espontaneitatez), eta gatazkarekiko jarrera (onartzea ala saihestea) dira nagusiki taldeak bereizten dituztenak.

Neurri batean emaitza hau antzema-
ten da kuadrila soilik aztertzerakoan
ere, zeren orduan ere bi dimentsio
hauek lehenatasuna hartzen baitute.

Zalantzarik gabe asko geratzen da
sakontzeko, nola ez bada. Zeren talde
heterogenoagoak hartu izan bagenitu,
adibidez adin desberdinekoak edota
talde hierarkizatuagoak, emaitzak ere
alda zitezkeela esan behar baitugu.

Ikasketa diakronikoen beharra ere
hor geratzen da, nahiz eta jakin
azpisailean ildo horretatik ari direla
lanean.

Zain dagoen beste eginkizun bat
hauxe da: behaketa bitartez hemen
azaldutakoa frogatzea.

Bibliografia

AEBISCHER, V.; OBERLE, D.; *Le groupe en psychologie sociale*, Paris, Dunod, 1990.

BAR-TAL, D.; *Group Beliefs. A conception for Analyzing Group Structure, Processes, and Behavior*. New York, Springer, 1990.

CORNEJO, J-M.; *Ancorsim: Programa Informático de Análisis de Correspondencias*. Bartzelona, PPU, 1988.

DOISE, W. "Imágenes, representaciones, ideologías y experimentación psicossociológica". *Suplementos Anthropos*, Bartzelona, Anthropos.

FARR, R. : The long past and the short history of social psychology. *European Journal of Social Psychology*. 21, 371-380, 1991.

HENDRICK, C.; *Group Processes and Intergroup Relations*. Londres, Sage, 1987.

IBAÑEZ, T.; *Ideologías de la vida cotidiana*. Bartzelona, Sendai, 1988.

JODELET, D.; *Les représentations sociales*. Paris. PUF., 1989.

KAES, R.; *El aparato psíquico grupal*. Bartzelona, Granica., 1977.

LEBART, L.; MORINEAU, A.; *Système portable pour l'analyse des données*. Paris, CESIA, 1977.